

## Urtea pasa eta ezer pasa ez

**U**rtea pasa arren, ezer pasa ez ote den beldurrez. Urte amaierako sindromea ei da, hala-ko zerbait asmatu behar balitz, eta urte amaiera itxaropenen eta beldurren bilgune bilakatzen da. Pentsio planak, inbertsioak eta errentak aztertzeke ordua iritsi bide da, igandeetako prentsako ekonomia gehigarrien arabera. Urtekarietako gehigarrietan urteko eboluzioaren berri jakiteke ordua iritsi da: munduaz, eraldaketa klimatikoaz, Realaren egoeraz, euskal kulturaz, hizkuntza plangintzaz.

Aurreko urte bateko urtekariak ditut gogoan eta aurreko urte hondarreko oharrak begi bistan. Halaxe izan zen, pasa den urtean ere. Baina joan den urtean, artean, aieru txarrak agertu arren, itxaropenari eutsi nahi zion giza-taldea hiztunago zen, etorkizunari buruz hitz egiteko itxaropenaz ari-zeke ez zen hainbesteko lotsarik.

Litekeena da, orain gutxi Elzori irakurri nionagatik, hedabideetan alderdi ezkorrenak argitaratzeko joerak gure errealitatearen pertzeptzioa guztiz ezkor bilakatzea. Areago, gure adimena kamustu eta hedabideetan agertzen ez denik ez ikusi ere egitea. Edo litekeena da goizeko orduetara argia baino lehen iristea, eta ortzi mugarik ez ikustea. Baina urtea pasa arren, ezer pasa ez ote delako nago.

Urteko balantzeaz gain, gure sasoiaren balantzak ere gizarte gizendu baten zantzuak uzten ditu. Giharrik ez egoera askori buelta emateko.



DANI BLANCO

Arazoen aurrean inhibizioa, ihesa eta depresioa, askotan. Agian ondotoxi bizi gara ezer aldatu nahi izateko, geure itxaropenei eta desioei buruz dugun ikuspegia bera ere aldatzeko, baina irudipena dut erabakimena galtzen ari den gizarterantz goazela. Existenzialismoak aukeratzea eta aukera artean erabakitzean funtsatu bazuen belaunaldi askoren identitatea, gaurko belaunaldien aukera, aukeran ez aukeratzea bide da.

Eta erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen dugunean, eta erabakitzeko eskumena ukatzen zaigunean, eta hau eta hori esateko hitz egiteko eskatzen zaigunean eta hau eta beste esateagatik gure ordezkariak preso eraman ditzaketenean, eta kontuak atera eta gehiengo omen denak bere gehiengo erabiltzen duenean arrazoi bakarizat, arrazoibidez aurrera atera ez daitezkeenak ateratzeko, iruditzen zait urtea pasa dela eta ezer ez dela pasa.

Leihotik begira eta ez du egunak argitu, eta izotz handi bat egiten du; elurterako hotzegi. Esku bat bestearekin bildu eta egutegira begiratzen dut. Hurrengo batean, urte hasierako artikulua bat idatziko dut, urte hasierako beti aurkitzen da itxaropen izpi bat. Urtea bezala artikulua amaitu beharrean nago; egitekoen zerrenda sozialari erreparatzen diot, besteak zoriotsu nola egin pentsatzeko tarterik hartzen ez duen gizartearen etxeak opariz betetzeko egunak datoz. ■



Irudipena dut  
erabakimena galtzen ari den  
gizarterantz goazela



### HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Sariko finalean izan ginen Aiherran. Maialen Arzallusek eraman zuen txapela, Unai Gaztelumendiri puntu erdia kenduta. Beñat anaiarentzule zuen Unai. Azken agurrean, Illunbekoa gogoan, Beñatek txapela berari eskaintzea eskatu zion. Txalo zaparrada bildu zuen. Oholtzatik jaistean irribarretsu hurbildu zitzaion anaiari eta saioan izandako gorabeheraren bat izan zuten mintzagai. Izan ere, kartzelakoan puntuei erantzunez estropezuka ibili ziren bertsolari guztiak, errimatzat “zerbait” jarri zieten. Baina Unai, berak aukeratu doinuan egin zuen estrapezurik larriena, hiruga-

## Hernandorena

rren puntu bitartean berak ere ez baitzekien zein doinutan ari zen kantari. Neurtu, bertsoa zehatz neurtzen bazuen ere, kantaerak ez zuen kantu itxurarik. Tonu batez abiatu eta puntu bakoitzak zuen tonu diferente bat desafinatzearen ondorioz. “Goizean ongi egiten nuen...” bota zion anaiari. Kanta zuen eran egin izan balu testua, dagoeneko bertso eskoletako irakasleak batzartuta leudeke beren zeregina aztergai. Eta epailek bertsoa kantatua dela kontuan hartuko balute, Unai ez zuten puntu erdira sailkatuko. Baina azken agurrean, momentuan demasa irudituko zitzaidan hartan, ia-ia asmatu egin zuen nire harridurarako. ■